Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko urtarrilaren 22a, ostirala — 13 — Viernes, a 22 de enero de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

### Hirigintza

*Kaletxiki 5 eta 7 guneari dagokion Birpartzelazio Proiektuaren behin betiko onespena.*

Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du, 2020ko abenduaren 18an, Andoaingo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Kaletxiki 5 eta 7 hiriguneari dagokion Birpartzelazio Proiektuari behin betiko onespena ematea.

Bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo daiteke, Donostian dagoen Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, iragarki hau argitara ematen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hala ere, nahi izanez gero eta administrazioa-rekiko auzi-helegitearen aurretik, partikularrek berraztertzeko helegitea aurkeztu ahal izango dute, Udal honetako Alkatearen aurrean, hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Helegitea aurkezten den egunetik konta-tzen hasi eta hilabeteko epean jakinarazpenik jaso ez bada, gaitzetsi egin dela ulertuko da.

Berraztertzeko helegitearen berariazko ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu ahal izango da Donostiako Epaitegian, jakinarazpena jaso edo argitaratzen den egunaren biharamunetik 2 hilabeteko epean, eta ebazpena isilbidezkoa bada, berriz, berraztertzeko helegitea aurkeztu den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta 7 hilabeteko epean.

Hautazko berraztertzeko helegitea aurkeztuz gero, ezingo da administrazioarekiko auzi-helegiterik aurkeztu, berraztertzekoa berariaz edo isilbidez ebatzi bitartean.

Andoain, 2020ko abenduaren 29a.—Maider Lainez Lazcoz, alkatea. (42)

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

### Urbanismo

*Aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación del Kaletxiki 5 y 7.*

La Junta de Gobierno Local, en su sesión de fecha 18 de diciembre de 2020, ha acordado aprobar con carácter definitivo el Proyecto de Reparcelación del Kaletxiki 5 y 7 del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la publicación de este anuncio.

No obstante, si así lo desean y previo al recurso contencioso administrativo, los particulares pueden presentar, ante el Alcalde de este Ayuntamiento, recurso de reposición, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Se entenderá desestimado al mes de haberlo presentado sin recibir notificación alguna.

Contra la resolución expresa o tácita del recurso de reposición podrá presentar recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de San Sebastián, en el plazo de 2 meses a contar desde el día siguiente de la notificación en caso de resolución expresa. Y contra la desestimación presunta por silencio administrativo en el plazo de 7 meses a contar desde el día siguiente a su presentación.

Si opta por presentar el recurso de reposición, no podrá presentar recurso contencioso-administrativo hasta que aquel sea resuelto expresamente o se haya producido su desestimación por silencio.

Andoain, a 29 de diciembre de 2020.—La alcaldesa, Maider Lainez Lazcoz. (42)

EK\CV GAO-I-2021-00042